

9/12

*irizpena*

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntzari dagozkion jarduerak egiteko laguntzak araupetu dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2012ko maiatzaren 25ean



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

The background features a light blue gradient with a complex pattern of overlapping, thin, light blue circles and arcs that create a sense of depth and movement. A solid, medium-blue horizontal bar spans across the middle of the page, serving as a platform for the text.

*i*rizpena 9/12

## **I.- SARRERA**

---

2012ko maiatzaren 9an Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren idatzia sartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean. Bertan, bizitza osoan zehar egiten den ikaskuntzaren inguruko jarduerak gauzatzeko laguntzak arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzko txostena eskatu zen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legeko 3.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Berehala bidali zitzairen txostenaren kopia Batzordeko Osoko Bilkurako kide guztiei, beren proposamen eta iritzia ikertzeko eta Lan Batzorde egokiari horien berri emateko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Araudian ezarritakoaren arabera.

Garapen Ekonomikoaren Batzordea 2012ko maiatzaren 21ean batu zen, Irizpen Aurreproiekturako lehenengo proposamena eztabaidatze aldera. Egun horretan bertan, Batzordeak Irizpen Proiektu hau onetsi zuen eta Euskadiko EGABen 2012ko maiatzaren 25eko Osoko Bilkurara bidali da. Bertan, aho batez onetsi da.

## **II.- EDUKIA**

---

Dekretu Proiektuari buruzko testuak Arrazoiaren azalpena, 21 artikulua, xedapen indargabetzaile 1 eta 3 azken xedapen dauzka.

### ARRAZOIEN AZALPENEA

Adierazitakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egozten dizkio, beste jardun-arlo batzuen artean, bizitza osoan zehar prestakuntza hartu edo areagotzen duten ikaskuntza-jarduerak.

Bestalde, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen dituen irailaren 14ko 233/2010 Dekretuak Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzari egozten dio, beste funtzio batzuen artean, ezagutzaren gizarte berrian sartuko gaituen eta aukerak aprobetxatuko dituen prestakuntza-sistema garatzeko bidez osoan zehar beharrezko izango ditugun ikaskuntza-ekintzak diseinatu, zehaztu eta aplikatzeko zeregina.

Jarraian azaldutakoaren arabera, Dekretuan araututako laguntzen onurak jasotzen dituzten bizi osoko ikaskuntza-jarduerak pertsona hartzaileen eskumen pertsonal eta profesionalak eguneratu eta hobetzea izan behar dute xede, batez ere funtsezko eskumenak, ikaskuntza-prozesuetan etengabe jarraitzera bultzatuz eta gizartearen era aktiboan parte hartzeko gaitasuna lor dezaten. Lanerako prestakuntzaren eremuan sar daitezkeen jarduerak ez dute honelako laguntzarik jasoko.

Halaber, abenduaren 17ko 298/2002 Dekretuak bidez osoan zehar egindako ikaskuntza-jarduerari diru-laguntzak emateko araudia ezarri zuen eta, Dekretu hori hamar urtez garatu eta aplikatu ondoren, diruz lagun daitezkeen jardueren baldintza eta ezaugarriak zehaztu behar dira, EAEko pertsona helduen prestakuntza formal eta ez-formalaren egungo beharrezkoak asetzeko, ekonomia, gizarte eta araudiaren testuinguru berri honetan.

Ildo horretan adierazitakoari jarraiki, 2020ko Estrategia Europarraren helburua kontuan hartzea beharrezkoa da, hau da, bidez osoan zehar ikaskuntzan parte hartzen duten pertsona helduen portzentajea % 15koa izan behar da 2020an; eta nahiz eta EAE 2008an % 13,5eko portzentajearekin bide onean dagoen, euskaldunek bidez osoan zehar ikasten jarraitzeko neurriak sustatu behar dira.

## XEDAPENAK

**1. artikuluan** Dekretuaren helburua aurkezten da: bidez osoko ikaskuntza-ekintzak garatzen dituzten jarduerak egiteko laguntzak arautzea.

**2. artikuluan** aplikazio-eremua ezartzen du, hau da, EAE.

**3. artikuluan** laguntzak jaso ahal dituzten erakundeak aipatzen dira: udalak eta udalerrien mankomunitateak; tokiko eta eskualdeko garapenerako agentziak, betiere nortasun juridiko independentea badaukate; udal-sozietateak; Euskal Autonomia Erkidegoan dauden unibertsitateak, esperimentazio-proiektuetarako soilik; irabazi-asmorik gabeko erakundeak, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Elkartearen Erregistroan erregistratuta daudenak eta bizitza osoko ikaskuntza-eremuan ekintzak garatzen dituztenak, batez ere herritartasun aktiboa sustatzeari dagokionez; eta Lanbide Heziketako edo Helduen Hezkuntzako irakaskuntza ematen duten ikastetxe pribatuak.

**4. artikuluan** diruz lagun daitezkeen jarduerak jasotzen dira.

**5. artikulua** ikaskuntzaren bitartekotza-zerbitzua garatzeko baldintzak arautzen ditu.

9/12 

**6. artikulua** diru-laguntzaren kopuruari buruz mintzatzen da. Diru-laguntza hori fondo galdura emango da, baina ez du onartutako aurrekontuaren % 100 gaindituko.

**7. artikulua** Gizarte Segurantzako, laneko eta diru-laguntza publikoetako zerga-betebeharren betearazpena jasotzen du.

**8. artikuluan** erakunde onuradunen betebeharrak ezartzen dira.

**9. artikulua** Dekretu honetan araututako diru-laguntzen eta beste batzuen arteko bateragarritasuna ezartzen du, betiere kopuru osoa onartutako aurrekontuaren kostu osoaren gainera ez badago.

**10. artikuluan** eskaerak aurkezteko prozedura arautzen da, hau da, modua, epea eta publizitatea.

**11. artikulua** diru-laguntzaren eskabideekin batera nahitaez aurkeztu beharreko agiriak azaltzen ditu.

**12. artikuluan** eskaerako akatsak zuzentzeko epea (10 egunekoa) ezartzen da.

**13. artikulua** diru-laguntza adjudikatzeko prozedurari buruz mintzatzen da, hau da, lehiaketari buruz. Halaber, ezarritakoaren arabera, urteko deialdian horretarako esleitu den jarduera-motarako eskuragarri dagoen aurrekontu-kreditua edo eguneratutakoa agortu arte baloraziorik onena lortu dutenei adjudikatuko zaie laguntza.

**14. artikulua** eskaerak ebaluatzeko irizpideak ezartzen ditu.

**15. artikulua** Ebaluazio Batzordeari buruzkoa da.

**16. artikulua** Kudeaketa eta Ebazpenari buruz mintzatzen da. Adierazitakoaren arabera, laguntzak kudeatzeko organo eskuduna Etengabeko Ikaskuntza Zuzendaritza izango da; Dekretuan deskribatutako laguntzen emakida eta ukapena Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordearen ebazpenaren bidez zehaztuko dira, Ebaluazio Batzordeak proposatuta.

**17. artikulua** diru-laguntza ordaintzeko modua eta haren justifikazioa arautzen ditu.

**18. artikulua** arabera, Dekretu honen xedea betetzeko baliabide ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik bideratuko dira.

**19. artikulua** emandako diru-laguntza aldatzeko aukera aurreikusten du, diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen diren kasuetan eta, edonola ere, xede berdinerako beste diru-laguntza edo laguntzaren bat jasotzen bada eta Sailak emandakoarekin batera onartutako kostu osoa gainditzen bada.

**20. artikulua** jasotzeke dauden kopuruak eskuratzeko eskubidea galtzea, eta, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari jasotako kopuruak eta interes legalak (diru-laguntza ordaindu den unetik dagozkionak) ordaintzeko betebeharra ezartzea eragingo duten kasuak ezartzen ditu, bidezkoak diren gainerako ekintzei kalterik eragin gabe.

**21. artikulua** aurreko artikuluan aurreikusitako arau-hausteren bat eginez gero dirua itzultzeko prozedura arautzen du.

**Xedapen indargabetzaileak** indarrik gabe uzten du bizitza osoan zehar egindako ikaskuntzaren inguruko jarduerak gauzatzeko laguntzak arautzen dituen abenduaren 17ko 298/2002 Dekretua.

**Azken xedapenetatik lehenengoak** baimena ematen dio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, Dekretu honetan aurreikusitakoa garatu eta betetzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken xedapenetatik bigarrenak** Dekretuaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzeko aukera aurreikusten du. 9/12j

**Azken xedapenetatik hirugarrena** Dekretuaren indarraldiari buruzkoa da.III. kapitulua.- Euskadiko agiritegien sistema

### **III.- OHARRAK**

---

#### III.1 OHAR OROKORRAK

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egozten dizkio, beste jardun-arlo batzuen artean, bizitza osoan zehar prestakuntza hartu edo areagotzen duten ikaskuntza-jarduerak.

Bestalde, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen dituen irailaren 14ko 233/2010 Dekretuak Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzari egozten dio, beste funtzio batzuen artean, ezagutzaren gizarte berrian sartuko gaituen eta aukerak aprobetxatuko dituen prestakuntza-sistema garatzeko bizitza osoan zehar beharrezko izango ditugun ekintzak diseinatu, zehaztu eta aplikatzeko zeregina.

Abenduaren 17ko 298/2002 Dekretuak bizitza osoan zehar egiten den ikaskuntzaren inguruko jardueri diru-laguntzak emateko araudia ezarri zuen. Diru-laguntza horiek testuinguru baten barruan zeuden eta Europako Batzordearen etengabeko ikaskuntzari buruzko Memorandum delakoan eta “Etengabeko ikaskuntzaren espazio europarra errealitate bihurtzea” Batzordearen komunikazioan adierazitako helburu estrategikoei erantzutea zuten xede.

Dekretu hori hamar urtez garatu eta aplikatu ondoren, diruz lagun daitezkeen jardueren ezaugarri eta baldintzak zehaztea beharrezkotzat jo da, EAEko pertsona helduen prestakuntza formal eta ez-formalaren egungo beharrianak asetzeko, ekonomia, gizarte eta araudiaren testuinguru berri honetan.

9/12*j*

Ildo horretan, kontuan hartu behar da 2020ko Estrategiaren helburua zera dela, bizitza osoan zehar ikaskuntzan parte hartzen duten pertsona helduen portzentajea % 15ekoa izatea 2020an; eta nahiz eta EAE 2008an % 13,5eko portzentajearekin bide onean dagoen, euskaldunek bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeko neurriak sustatu behar dira.

Kontsultatu zaigun Dekretu Proiektuan azaldutakoaren arabera, Dekretuan araututako laguntzen onurak jasotzen dituzten bizitzako ikaskuntza-jarduerak pertsona hartzaileen eskumen pertsonal eta profesionalak eguneratu eta hobetzea izan behar dute xede, batez ere funtsezko eskumenak, ikaskuntza-prozesuetan etengabe jarraitzera bultzatuz eta gizartean era aktiboan parte hartzeko gaitasuna lor dezaten. Lanerako prestakuntzaren eremuan sar daitezkeen jarduerak ez dute honelako laguntzarik jasoko.

Hori dela eta, Batzorde honek positiboki baloratzen du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ekimena, 10 urtetik gorako ibilbidea duen araudia eguneratzea eta 2020ko Estrategia Europarraren eskakizunetara egokitzea baitira ekimenaren helburuak.

Hala ere, Batzorde honen ustez Dekretu Proiektuan kontuan hartu beharreko alderdi batzuk daude. Besteak beste honakoak aipa ditzakegu:

- Lehenengo eta behin, Dekretu Proiektuaren justifikazio-memorian eta memoria ekonomikoan aipatzen den bezala, Dekretua Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sustatzen du, abenduaren 17ko 298/2002 Dekretua ez bezala. Azken hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren arteko Dekretua izan zen.

Aldaketa hori positiboa iruditzen zaigu. Izan ere, aurreko Dekretua baterako dekretu gisa agertzen zen arren, praktikan Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aurrekontuetatik etorri da osorik aurrekontu eskuragarria; diru-laguntza horiek kudeatzeko organo eskuduna Etengabeko Ikaskuntza Zuzendaritza izan da (298/2002 Dekretuko 16.1 artikulua); eta laguntzen emakida eta ukapena Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzako pertsona arduradunaren ebazpenaren bidez zehaztu dira (298/2002 Dekretuko 16.2 artikulua).

Berez, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak diru-laguntzen kudeaketan izan duen partaidetza honakoa izan da: Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Saileko Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzako pertsona arduradunak edo hark eskuordetutako pertsonak Ebaluazio Batzordean parte hartu du (298/2002 Dekretuko 15.1 artikulua). Horren harira aipatzekoa da Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen dituen martxoaren 22ko 42/2011 Dekretuan ezarritako Sailaren egiturak ez duela Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza aurreikusten. Izan ere, egun, euskal administrazioak enpleguko politika aktiboaren eskualdaketa bere gain ondoren, Lanbideak garatzen ditu enplegu eta prestakuntzaren eremuari egotzitako funtzioak.

Gure ustez argudio hori arrazioen azalpenean jaso beharko litzateke, aurreko egoera nabarmen aldatzen du eta.

- Nahiz eta egia den Dekretu Proiektuak memoria ekonomiko bat jasotzen duela, 2012/2013 ikasturtean jarduera hauek finantzatzeko aurrekontu-kreditua zehaztuta, ez dugu hurrengo ikasturteetarako aurrekontu-balioespenik ikusi eta azpimarratu beharra daukagu laguntza hauek zilegi izan daitezen aurrekontu-kopuru nahikoa egon behar dela, etengabeko

hezkuntzaren helburua bete ahal izateko. Kopurua ez bada egokia, gero hezkuntza eteteko arriskua sor liteke.

### III.2 OHAR ESPEZIFIKOAK

#### ***Arrazoen azalpena***

- Bosgarren paragrafoak honakoa dio: *“Dekretu honetan araututako laguntzek pertsona hartzaileen eskumen pertsonal eta profesionalak eguneratu eta hobetzea izan behar dute xede, batez ere funtsezko eskumenak, ikaskuntza-prozesuetan etengabe jarraitzera bultzatzen eta gizartean era aktiboan parte hartzeko gaitasuna lor dezaten.”*

Eta, aurrerago, zazpigarren paragrafoan honakoa xedatu da: *“...diruz lagun daitezkeen jardueren baldintza eta ezaugarriak zehaztu behar dira, EAEko pertsona helduen prestakuntza formal eta ez-formalaren egungo beharrianak asetzeko...”*

Paragrafo horiek irakurrita harritzekoa da Dekretu Proiektuak aurreikusten dituen erakunde onuradunen artean ez dela agertzen EAEko bigarren hezkuntzako ikastetxe publikorik, eta, bai, ordea, Lanbide Heziketa edo Helduen Hezkuntzako ikaskuntzak ematen dituzten ikastetxe pribatuak. Era berean, unibertsitateek etengabeko prestakuntza-jarduera horien finantzazioan duten partaidetza esperimendazio-proiektuetara soilik mugatzen bada, gure erkidegoan egun dagoen prestakuntza-potentzial handiena baztertu egiten da. “Bizitza osoan zehar egiten den ikaskuntza”, proiektu honen arabera, oso era mugatuan ulertzen da bere eduki posibleari dagokionez.

- Honakoa adieraziko duen paragrafo bat gehitzea komeni dela uste dugu:

**“Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 5.1 artikulua araberako, pertsona guztiek bizitza osoan zehar prestakuntza jasotzeko aukera eduki behar dute, hezkuntza-sistemaren barruan edo hortik kanpo, beren gaitasunak, ezagutzak, trebetasunak, jarrerak eta**

**eskumenak eskuratu, eguneratu, aztertu eta handitzeko, pertsonalki eta profesionalki garatze aldera."**

Izan ere, gure ustez, aipatzekoa da arrazoen azalpenean, hau da, arauaren mamia jasotzen duen zatian, ez azaltzea etengabeko prestakuntza defendatzen duen oinarritzko araudiari buruzko erreferentzia hau.

### 3. Artikulua. Erakunde Onuradunak

- e) atala honela aldatu beharko litzateke:

*"e) Irabazi-asmorik gabeko erakundeak, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Elkarteen Erregistroan erregistratutakoak, Elkarteei buruzko otsailaren 12ko 3/1988 Legearen arabera, eta bizitza osoko ikaskuntzaren eremuan ekintzak garatzen dituztenenak, batez ere herritartasun aktiboa sustatzeari dagokionez; **horien helburuen artean prestakuntza dagoelarik.**"*

Izan ere, erakunde horiek bizitza osoan zehar ikasteko programak garatu ditzaketen arren, ezin dugu ahaztu elkartearen helburuek beren jardueraren eremua edo eremuak zehazten dituztela eta hori lege-testuan islatu beharko litzateke.

- Arrazoen azalpeneko ohar espezifikoetako lehenengo puntuaren ildotik, beharrezkotzat jotzen dugu erakunde onuradunen artean EAeko bigarren hezkuntzako ikastetxe publikoak eta gure erkidegoko unibertsitate publiko eta pribatuak sartzea. Hau da, unibertsitateen kasuan etengabeko ikaskuntza-jarduerak garatzeko (eta ez soilik esperimentazio-proiektuetarako) diru-laguntzak jaso ditzaketen erakunde gisa sartzea.

### 5. artikulua. Ikaskuntzaren bitartekotza-zerbitzua

3. atalari dagokionez, gure aburuz, deskoordinazioa ageri da atal horren enuntziatuan "Erakunde eskatzaileak jarduera-plana aurkeztu eta gauzatu beharko du..." eta b) atalean (ikaskuntza-plana bere eremu geografikoko beste erakunde batzuekin lankidetzan gauzatu eta jarraitzeko ezartzen du) adierazitakoaren artean.

Jarduera-plana eta ikaskuntza-plana kontzeptuak desberdinak dira, baina ez da argitzen zein koordinazio-mekanismo ezarriko diren edo zer gertatzen den erakunde batek ez badu lankidetzan aritu nahi edo antzeko bi ikaskuntza-plan edo gehiago badaude.

**7. artikulua. Gizarte Segurantzako, laneko eta diru-laguntza publikoetako zerga-betebeharrak betetzea.**

Lehenengo atalaren barruan honakoa adierazten duen bigarren paragrafoa sartzea komeni dela uste dugu:

9/12j

“Halaber, ezingo du diru-laguntza eskuratzeko aukera galtzeko zigor penal edo administratiborik eduki eta ezingo da legezko debekuren batean ere egon sexu-diskriminazioagatik, gizonen eta emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedapenetatik seigarrenean adierazitakoaren arabera”.

**8. artikulua. Erakunde onuradunen betebeharrak**

- 3. atalak honakoa dio: “Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak beharrezko ikuskaritza- eta kontrol-funtzioak egin ahalko ditu, Dekretu honetan aurreikusten diren helburuak betetzen direla bermatzeko”.

Gure iritziz idazketa hori suabeegia da; Sailak funtzio horiek **egin beharko ditu**, emaitza bermatze aldera.

- Bosgarren atal bat gehitzea gomendatzen da:

“Idatziz jakinaraztea beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuen eskutik beste laguntza edo diru-laguntzaren bat jaso dela, berau eskaera aurkeztu ondoren eman edo jaso bada.”

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeko testu bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuko 50.2.d artikulua honako betebeharra ezartzen du:

*"Edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribaturen eskutik xede bererako diru-laguntzak, laguntzak, sarrerak edo baliabideak jasoz gero, erakunde emaileari jakinarazi beharko zaito".*

Gehigarri honetan adierazitako betebeharra zabalagoa da eta 9. artikuluan ezarritakoarekin lotuta dago.

### **10. artikulua. Eskaerak aurkeztea: modua, epea eta publizitatea**

Honakoa gehitu behar dela uste dugu:

*1.- Eskaerak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Etengabeko Ikaskuntza Zuzendaritzara zuzenduta, eskabide normalizatuan eta behar bezala beteta aurkeztuko dira ekintza gauzatzen den lurralde historikoko Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lurralde-ordezkaritzetan, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan aurreikusitako bulegoetako edozeinetan edo Euskal Autonomoen sorrera, antolakuntza eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan aurreikusitakoetan. **Eskabide hori [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) webgunean ere egongo da interesdunen esku.***

Izan ere, administrazio elektronikoa gehitu behar da prozedura hauetara.

### **11. artikulua. Nahitaezko dokumentazioa**

- 1.b atalean "hirugarren" interesdun bat aipatzen da; nori buruz ari den azaldu beharko litzateke.
- "Zinpeko aitortpenaren" ordez (e eta f atalak) **"ardurapeko aitortpena"** adierazi beharko litzateke.
- g) atala gehitzea komeni da:

**g) Erakunde eskatzailearen legezko ordezkariak bere izen eta ordezkaritza jarduteko gaitasuna duela egiaztatzen duen dokumentazioaren eta sozietatearen estatutuen kopia konpultsatua”.**

Izan ere, pertsona juridikoak diru-laguntzak eskatzen dituenean, legezko ordezkariaren gaitasuna aurkeztu behar da.

### **8-11 artikulua.**

Gure ustez, diru-laguntzen deialdiak arautzen dituzten aginduek argi eta garbi ezarri behar dituzte zerbitzuak zein baldintzatan hornituko diren, hau da, zein betekizun bete behar diren. Halaber, betekizun horien artean diru-laguntzarekin lotutako prestakuntza doakoa den ala ez zehaztu beharko litzateke, eta, azken kasu horretan, ikasleek ordaindu beharreko finantzakostua adierazi.

### **14. artikulua. Eskaerak ebaluatzeko irizpidea**

- 1.c) atalari dagokionez, ibilbidearen ondoan **"kaudimen teknikoa"** sartu behar da.
- 5. atalak honakoa dio: *"Gutxienez 40 puntu lortzen ez dituzten eskaerak ezingo dira finantzatu"*

Gure aburuz indar handiagoz zehaztu beharko litzateke.

**“Ez dira finantzatuko gutxienez 40 puntu lortzen ez dituzten eskaerak”**

### **16. artikulua. Kudeaketa eta ebazpena**

- 3. atalari 2. paragrafo hau gehitzeko proposamena egin nahi dugu:

**"Ebazpen horretan erakunde onuradunen zerrenda jasoko da, diruz lagundutako programen kopurua eta izena, diru-laguntza osoaren zenbatekoa, puntuazioa, baztertutako erakundeak eta horretarako arrazoiak adierazita".**

- 4. atala honela aldatzea komeni dela uste dugu:

*“4.-Eskaerak ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, **eskabideak aurkezteko epea amaitu eta biharamunetik zenbatzen hasita**. Epe hori amaitzean ~~ezetsizat jo ahalko da~~ **ezetsizat joko da** diru-laguntzaren eskaera, baldin eta ez badago berariazko ebazpenik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoaren ondoretarako, administrazioak berariaz ebazteko duen betebeharrari kalterik eragin gabe.”*

### **19. artikulua. Diru-laguntza aldatzea**

9/12j

Artikuluak honakoa dio:

*“Diru-laguntza emateko orduan kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, eta, edonola ere, xede berdinerako beste diru-laguntza edo laguntzaren bat jaso dela jakiten bada... emandako diru-laguntza aldatu egingo da...”*

Erakunde onuradunak beste diru-laguntzarik ote daukan jakinarazi behar duela argi eta garbi ezarri beharko litzateke. Hala egingo ez balitz, emandako diru-laguntza aldatzeaz gain zigor bat ezarri beharko litzateke.

### **Kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk eta akats ortografikoak**

- “Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari”, “Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordeari” eta “Etengabeko Ikaskuntzako zuzendariari” buruz hitz egitean “sailburu”, “sailburuorde” eta “zuzendari” terminoen ordez honakoak erabiltzea: “... Saileko pertsona arduraduna”, “... Sailburuordetzako pertsona arduraduna” eta “... Zuzendaritzako pertsona arduraduna”.
- Akats ortografikoak:
  - » Arrazoen azalpena, bosgarren paragrafoa: “e” bat sobratzen da “... eespecialmente de las competencia clave” esaldian.
  - » 5.2 eta 14.2.a artikulua: “medicación” hitzaren ordez “mediación”

jartzea.

- » 8.1 artikulua: “s” bat sobratzen da Departamentos hitzan.
- » 8.3 artikulua: “a” ezabatu “así como a colaborar” dioenean.
- » 11.1.b artikulua: ficha de alta del “tercero” ordeztu “tercer” idatzi.
- » 17.b artikulua, bigarren paragrafoa: “deberán adjuntarse...” dioen tokian “n” ezabatu.

#### **IV.- ONDORIOAK**

---

EGABen ustez egokia da bizitza osoan zehar egiten den ikaskuntzaren inguruko jarduerak gauzatzeko laguntzak arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzko tramitazioa, kontsulta-organo honek egin dituen oharrek kontuan hartuta.

Bilbon, 2012ko maiatzaren 25ean

Presidentea O.E.  
Juan María Otaegui Murua

Idazkari Nagusia  
Francisco José Huidobro Burgos



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

©Argitalpena: EEGAB

Gran Vía 81, 7. solairua  
48011 Bilbao. Bizkaia  
[www.cesvasco.es](http://www.cesvasco.es)

Maketazioa: EEGAB

Inprenta: Gestingraf

Lege Gordailua: BI-1020-12